





Zelebren gabiltza

Izaten dira pasadizo edo gertaera xelebreak bizitzan. Baita erorketa tontoak ere. Denbora pasatu arren grazia egiten digutenak gogoratze hutsez. Eta kontatzearen poderioz gertakari ezagun egiten direnak. Nork hasi nahi du umorezko pasadizo bat kontatzen?

Zertan trebatuko gara...

Kopletan ariko gara. Lehenik, puntuari erantzuten. Gero, 2 oinak emanda. Azkenik, heldulekurik gabe koplak osatzeko aukera izango dugu.

... eta zer ikasiko dugu?

Errima familiak zer diren.

Plazara!

Bertso xelebreak jarri eta pasadizoak eta istripu tontoak kopletan kontatuko ditugunez, dibertigarriak izango dira zabaltzeko: ikastetxeko jaialdian, eskolako webgunean zein aldizkarian, edo txikienen gelan.



Baldarrak

Unai Mendizabal Jauregi

Herrian gertatu diren erorketa tontoak kontatuko dizkigu Unai Mendizabalek, koplatan.

Doinua: Hona bildots ezitia
Kopla txikia

Gure herrian bada baldarra ugari berriz deitu diogu anbulantziari.

- 1 Pasatzen ari zela etxean **fregona** irristan hankaz gora joan da **amona**.
- 2 Jon traktoretik behera jausi da, **begira** ximaur pila gainera buruz **erori da**.
- 3 Loreak ureztatzen ari zen **izeba** ta nahi gabe erori da balkoitik **behera**.
- 4 Postariak eskerrak zeraman **kaskoa** farola bat jo eta hautsi du **motoa**.
- 5 Anek sudurra hautsi du pareta **jota** lokarriak lotzea ahaztu **zaio ta**.
- 6 Leireri kuleroak ikusten **zaizkio** txakurrak ipurdian koxk egin **baitio**.
- 7 Udaltzaina zuzentzen kotxe **trafikoa** putz egin ta irentsi du **txilibittoa**.
- 8 Anbulantzia ere dabil hola **hola** aldapan behetik gora jo baitu **arbola**.
- 9 Nahiz herriko mozkorrak duen fama **txarra** bera da minik hartu ez duen **bakarra**.

Andre arruntaren koplak

Onintza Enbeita Maguregi



Eguneroko bizitza ere bada zelebren askoa...

Xabier Lete zenak, *Gizon arruntaren koplak* jarri zituen: bertso aldrebes eta ezagunak dira, gizon baten egunerokoa kontatuz, irriz.

Onintza Enbeitak emakume baten egun arrunta azalduko digu oraingoan; doinu berean, ezberdin.

Doinua: Kantatzera noazu II **Zortziko txikia**


- 1** Iritsi nahi ta ezin posible **ote da?**
Lana, yoga, lagunak, kick boxing ta **zera!**
Erdi korrika doa batetik **bestera** emakume arrunta goizetik **gauera**.
- 2** Burkopean aurkitu ohi dut **adorea** kolpean itzaltzeko **despertadorea**.
Gosariak bueltatu artean **kordea** goizetan izaten naiz nahikoa **bordea**.
- 3** Ispiluari beha denbora **luzean** erabaki nahian zer jantzi **gorputzean**.
Baina dotorezia galtzen da **hutsean:** ahoa zabalik lo joaten naiz **busean**.
- 4** Lantokian utzita mila haserre **han** lagunekin kafea **ilunabarrean**.
Badaukat imanen bat nire **paparrean:** ardo tantak biltzeko egun **hondarrean**.
- 5** Esnatu eta dena goibel **ikusteko** egun batzutan lotan banengo **hobeto!**
Zer daukat munduari zintzo **eskaintzeko** arruntegia banaiz arrunt **izateko?**



Karta jokoa hartu eta, “errima kartak” erabiliz, **bertso xelebreak** osatuko ditugu.

Karta bana hartuko dugu eta, elkarrenak ikusi gabe, egokitu zaigun **oinarekin puntu bat** sortuko dugu. Gero, errima bereko kartak ditugunok elkarren alboan jarritz (launaka), bakoitzak gure puntua abestuko dugu, **lauron**

Ziurrenik, **loturarik ez** dute izango lau puntuek... eta hala hobe!




Karta jokoa hartu eta, **koplatan**,
“*banu, balego eta balitz...*” kantatuz ariko gara:
egoera bitxi bakoitzean zer egingo genukeen,
galderari erantzunez, puntu bakarrean.

Oinak eman egin dizkigute orain arte. Oraingoan, geuk bilatuko ditugu. Errimatzen duten hitzak ekarri ezinik gabiltzanean, **lagungarriak** dira **errima familiak**.

Antzeko soinua dutenak edo **hoskideak**

Kontsonante batzuk, nahiz eta **ezberdinak** izan, **hoskideak** dira: **antzeko soinua** dute eta, horregatik, **errimatzat** onartzen ditugu.

Hoskideek **aukera** ematen digute errima zabaltzeko eta **oin gehiago** topatzeko.



K-P-T kontsonanteak

Gogoratzeko:
KoPeTa




Kontsonante hauek **ahoskabeak** dira. Eskua eztarrian jartzen badugu eta kontsonantea soilik ahoskatu, **bibraziorik ez** dagoela ohartuko gara; **kolpe lehor** batekin ahoskatzen dira.

Osatu oinak:

- Zar**ata**
.....
..... **ata**
..... **ata**
- Ald**apa**
.....
..... **apa**
..... **apa**
- Arrast**aka**
.....
..... **aka**
..... **aka**

B-G-R-D kontsonanteak

Gogoratzeko:
BeGiRaDa



Kontsonante **ahostunak** dira. Eskua eztarrian jartzen badugu eta kontsonantea soilik ahoskatu, **bibrazioa** sumatuko dugu.

Osatu oinak:

- Mundura
-ura
- Duda
-uda
- Muga
-uga
- Kuba
-uba

M-N kontsonanteak

Gogoratzeko:
aMoNa



Kontsonante **sudurkariak** dira. **Sudurra tapatzen** badugu eta kontsonante horiek soilik esan, ezingo ditugu ahoskatu.

Osatu oinak:

- Zama
-ama
-ama
-ama
- Lana
-ana
-ana
-ana

Z-S-X-TZ-TS-TX kontsonanteak

Gogoratzeko:
Sugea



Kontsonante **txistukariak** dira. **Haizearen** eta sugearen zarata gogorarazten digute.

Osatu oinak:

- Kaxa
-axa
-a₂a
- Martxa
-atxa
-at₂a

Istripu tontoak

Erorketa inozoei koplak jarriko dizkiegu, umorez.

Horretarako, lehenik, pare-parera datozen **oin bikoteak** osatuko ditugu.

Adibide gisa, oin bikote batzuk eginda ditugu hemen. Beste oin batzuei geuk topatu beharko diegu laguna. Eta, bukatzeko, gure upeleko aleak jarriko ditugu.

Gogoratu! Errimatzen duen hitza topatu ezinik bagabiltza, aukerak zabaldu ditzakegu **errima familiak** erabiliz.

Farola
Odola

Lotan
Zopan

Jausita
Tirita

Muturra

Izkina

Negarre_z

.....

.....

.....

Bi_zikleta

Ubeldura

Hanka_z yora

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Oin bikoteak hartu eta, komeni zaizkigun ordenan baliatuz, has gaitezen **kopletan!**

Doinua: Hona bildots eztia
Kopla txikia



Konta ditzagun gelan guri edo ezagunei
gertatu izan zaizkien pasadizoak eta
xelebrekeriak!
Gustukoena hautatu eta... saiatuko al gara
kontakizuna kopletan osatzen?

Jolasa

Errimen sudokua

Errima familiak zer diren ikasi dugunez, ea lortzen dugun buruhauste hau askatzea!
Gelaxka bakoitzean errimatzen duen hitz bat, gutxienez, jarri beharko dugu eta taula osatu.

Adi! Zutabe bakoitzean **gai bati buruzko oinak** topatzea eskatzen zaigu-eta!
Gogora dezagun, oinak errazago topatzeko, errima zabaldu egin dezakegula **errima familien** bidez.

	Gelako objektuak	Animaliak Landareak	Izenak	Elikagaiak	Bestelakoak
-ETA (KoPeTa)	Karpeta				
-ARA (BeGiRaDa)		Enara			Gara Ikara
-INA (aMoNa)			Martina		
-ITZA Sugea (z,s,x,tz,ts,tx)				Saltxitxa Pizza	